

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak, gure negozio ereduak funtziona dezan beharrezkoak diren aktiboak dira.

Gure enpresaren funtsezko baliabideak hiru taldetan sailkatuko ditugu:

Baliabide fisikoak: ikaleek behar dituzten laguntza guztiak eman ahal izateko ezinbestekoak izango dira telefonoak eta ordenagailuak. Gure enpresako lankideek lana ondo egin ahal izateko, lokal bat eduki beharko dugu, denak bertan egoteko eta gure artean ere lagundu ahal izateko.

Baliabide intelektualak edo giza baliabideak: gure enpresaren zuzendaritza osatzen dugun lau taldekideak ezinbestekoak izango gara; Markelek, webguneak sortzeko eta programatzeko gaitasuna du, beraz, bere laguntza oso garrantzitsua da, esperientzia duelako; Yune ere ezinbestekoa da, administrazio lanak eta bezeroeri beharrezko arreta emateko gaitasuna duelako; Alexen salmentarako abilezia eta marketin-erako gaitasuna ere oso baliagarria izango da; Nereak ere oso baliotsua da, zeozer pertsonalizatua behar duten ikasleak tratatzeko duen gaitasunaregatik. Azkenik, gure enpresak ikasle guztiei laguntza eman ahal izateko, irakasle izateko titulu duten hainbat lankide edukitzea ezinbesteko izango du.

Finantza-baliabideak: Hasieran, zuzendaritza osatzen dugun lau kideek inbertsio oso handi bat egin beharko dute enpresa sortzeko. Gainera, bankuari mailegu bat eskatuko diogu hasiera hobea izateko. Azkenik, eusko jaurlaritzak diru-laguntzak emango dizkigu gure enpresa aurrera atera dezagun.